Funtsezko Datuen Dokumentua

Helburua

Dokumentu honetan aurkituko duzu inbertsio-produktu honi buruz jakin beharreko funtsezko informazio guztia. Ez da material komertziala. Legeak exijitzen duen informazioa da, hobeto uler ditzazun produktuaren ezaugarriak, arriskuak, kostuak eta onurak, eta beste produktu batzuen ezaugarriekin konpara ditzazun.

Produktua

Produktuaren izena: Euribor Gordailu Egituratua 1. jaulkipena

Produktorearen izena: KUTXABANK SA

Informazio gehiago: +34 900 44 55 66 www.kutxabank.es

CNMV da KUTXABANK SAren gainbegiralea dokumentu honi dagokionez.

PRIIP hau baimenduta dago Espainian.

KUTXABANK SA baimenduta dago Espainian eta CNMVk arautzen du.

Funtsezko datuen dokumentuaren data: 2026/09/11

Zer da produktu hau?

Mota: 18 hilabeteko finantza-produktu egituratu bat da, eurotan, aukera ematen duena kapital bat inbertitzeko errentagarritasun potentzial baten eta kapital hori epemugan itzultzeko bermearen truke.

Epea: 18 hilabete. Gordailu bakoitza iraungiko da kontratazio-datatik hemezortzi hilabete igaro ondoren.

Helburuak: kontratatzeko unean, inbertitzaileak kapital printzipal bat entregatzen dio Bankuari, eta hura osorik itzultzea bermatuta dago mugaegunean.

Produktu honetan, azpiko aktiboa da 6 HILABETEKO EURIBOR indizea. Inbertsioaren errentagarritasuna izango da indize horren bilakaeraren araberakoa, eta kupoi bakar batean gauzatuko da. Honela:

- Kupoi aldakorra: Kupoi hori kobratzeko kontuan hartu beharreko erreferentzia 2028ko apirilaren 5eko indizearen finkapena da. Erreferentzia hori baldin bada % 3,00ekoa edo handiagoa, inbertitzaileak jasoko du inbertitutako kapitalaren gaineko % 5,245eko kupoia. Bestela, kupoia izango da % 1,875ekoa.

Mugaegunean, bezeroak jasoko du inbertitutako kapitalaren % 100.

Gordailu honen kupoi bidezko sarrera likidazio-egunean jasotzen da.

Ezaugarriak

Kapitala (EUR)	500 eurotik aurrera eta 500 euroren multiploak
Azpiko indizea(k)	6 HILABETEKO EURIBOR
Harpidetza-aldia	2026/10/07tik 2026/11/07ra
Hasierako-data	2026/10/07
Erreferentzia-maila	3,00%
Kupoia(k)	% 5,245ekoa edo % 1,875ekoa izango da, azpikoak behaketa-egune(t)an duen mailaren arabera
Behaketa-eguna(k)	2028/04/05
Likidazio-eguna(k)	Gordailu bakoitzerako, dagokion kontratazio-datatik 18 hilabete igaro ondoren
Likidazioa epemugan	Eskudirutan

Txikizkako zer inbertitzailerentzat da egokia? Produktu hau egokia da batez ere produktu-mota hau edo antzekoak ezagutzen dituzten edo era honetako produktuetan esperientzia duten inbertitzaileentzat.

Era berean, izan behar dute galerak onartzeko gai diren inbertitzaileak, Arrisku Adierazle Laburtu gisa adierazitako arrisku-mailari dagokionez, prest daudenak inbertsioa epemugara arte mantentzeko eta garrantzitsutzat dutenak epemugan kapitala berreskuratzeko bermea edukitzea.

Zer arrisku hartzen ari naiz eta zer lor dezaket trukean?

Arrisku-adierazle laburtua (AAL)

1	**2**	3	4	5	6	7

Arrisku txikiagoa ◄ ---------- ► Arrisku handiagoa

Arrisku-adierazlea zehaztean suposatu da produktua mantenduko duzula 18 hilabete, gordailua epemugara iritsi arte. Ezingo zara produktutik irten dagokionean baino lehen.

Arrisku-adierazle laburtua da produktu honen arrisku-mailaren gida bat, beste produktu batzuekin alderatuta, eta adierazten du produktuak dirua galtzeko probabilitatea, merkatuen bilakaeragatik edo guk zuri ezin ordaintzeagatik.

Produktua sailkatu dugu 2. arrisku-mailan, 7ko eskalan; beraz, 2. maila litzateke arrisku txikia.

Horrek esan nahi du txikia dela etorkizunean errentagarritasunetan galerak izateko aukera eta oso gertagaitza, merkatuaren egoera txar batek eragina izatea zuri ordaintzeko gaitasunean.

Eskubidea duzu berreskuratzeko gutxienez zure kapitalaren % 100. Hortik gorako edozein kopuru eta edozein errendimendu gehigarri egongo dira merkatuaren eta haren ziurgabetasunen mende. Produktu hau erabil daiteke barne berkapitalizaziorako pasibo gisa. Jaulkitzaileak hala erabakiz gero, akzio bihur daiteke edo haren printzipala murriztu, eta, beraz, galera izan dezakezu zure inbertsioan, Gordailuen Berme Funtsak estali gabeko zatian, 'Zer gertatzen da KUTXABANK SAk ordaindu ezin badu?' atalean jasotzen den bezala.

Zor zaizuna ezin bazaizu ordaindu, inbertsio osoa gal dezakezu.

Errentagarritasun-agertokiak

Produktu honetatik lortuko duzuna egongo da merkatuaren bilakaeraren mende, zalantzaz beteriko bilakaera eta zehatz-mehatz aurreikus ezin daitekeena.

Ondoren azaltzen diren agertokiak oinarrituta daude iraganeko emaitzetan eta hipotesi batzuetan. Merkatuek oso bestelako bilakaera izan dezakete etorkizunean.

Gomendatutako mantentze-aldia: 18 hilabete, gordailua epemugara iritsi arte
Adibidea: 10.000 €-ko zenbateko nominala

adibidea		18 hilabeteren ondoren irtenez gero
Agertokiak		
Gutxieneko agertokia	**Ez dago gutxieneko errendimendu bermaturik epemuga baino lehen irteten bada.**	
Estres-agertokia	**Kostuak kenduta jaso dezakezuna**	**10.190 EUR**
	Urteko batez besteko errendimendua	%1,25
Kontrako agertokia	**Kostuak kenduta jaso dezakezuna**	**10.190 EUR**
	Urteko batez besteko errendimendua	%1,25
Agertoki moderatua	**Kostuak kenduta jaso dezakezuna**	**10.520 EUR**
	Urteko batez besteko errendimendua	%3,47
Aldeko agertokia	**Kostuak kenduta jaso dezakezuna**	**10.520 EUR**
	Urteko batez besteko errendimendua	%3,47

Kopuru horietan sartzen dira produktuaren beraren kostu guztiak, baina litekeena da ez sartzea zure aholkulariari edo banatzaileari ordaindu behar dizkiozun kostu guztiak. Kopuruek ez dute kontuan hartzen zure egoera fiskal pertsonala, eta eragina izan dezake horrek ere jasoko duzun zenbatekoan.

Produktu hau erabiltezina da epea amaitu arte.

Inbertitutako kapitala bermatuko zaizu soil-soilik 'Zer da produktu hau?' ataleko baldintzak betetzen badituzu.

Kontrako agertokia, agertoki moderatua eta aldeko agertokia kalkulatu dira erabiliz aktiboaren edo azpiko aktiboen iraganeko errendimenduetan oinarritutako 10.000 simulazio. eta adierazten dute 10. 50 eta 90 pertzentilei dagokien emaitza. hurrenez hurren.

Estres-agertokiak erakusten du zer jaso dezakezun merkatuak muturreko egoeran daudenean.

Zer gertatzen da KUTXABANK SAk ordaindu ezin badu?

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoak bermatzen du kontratua, 2606/1996 Errege Dekretuaren 4.1 eta 4.4 artikuluetan ezarritako salbuespenetan izan ezik, eta muga izango du 16/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa, 100,000 € bezero bakoitzeko, aipatutako arauan edo ondorengoetan ezarritako baldintzetan.

· Fondoaren egoitza: C/José Ortega y Gasset, 22-5ª planta, 28006 Madrid
· Fondoaren harremanetarako telefono-zenbakia: +34 91 431 66 45
· Internet-helbidea: www.fgd.es
· E-maila: fogade@fgd.es

Bankuarekin zorrik izango bazenu, kontuan hartuko dira zor horiek bermatutako zenbatekoa kalkulatzean, aintzat harturik kreditu-erakundeen gordailuak bermatzeko fondoei buruzko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 7. artikulua

www.kutxabank.es webgunean eskura dezakezu Gordailugileentzako Informazio Inprimakia, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoari buruzko informazioarekin.

Zein dira kostuak?

Produktu honen inguruan aholkatzen dizun pertsonak edo saltzen dizunak beste kostu batzuk kobra ditzake. Kasu horretan, pertsona horrek informazioa emango dizu kostu horiei eta zure inbertsioan izango duten eraginari buruz.

Kostuak denboran zehar

Laukietan ikus daitezke zure inbertsiotik kentzen diren zenbatekoak, hainbat kosturi aurre egiteko, eta zenbateko horiek hainbat faktoreren mende daude: zenbat inbertitzen duzun, zenbat denbora mantentzen duzun produktua eta zeintzuk diren produktuaren emaitzak. Ondoren azaltzen den inbertsio-adibidean, kopuru jakin bat inbertitzen da hainbat inbertsio-alditan.

Hona hemen abiapuntua:

- Epemugan berreskuratuko zenuke inbertitutako zenbatekoa (% 0ko errendimendua).
- 10.000 € inbertitzen dira.

	18 hilabeteren ondoren irtenez gero
Kostuak guztira	**75 EUR**
Kostuen urteko intzidentzia (*)	%0,5

(*) Adierazten du zenbat murrizten duten kostuek zure errendimendua mantentze-aldian. Adibidez, gomendatutako mantentze-aldia amaitzean irtenez gero, zuretzat espero den batez besteko errendimendua izango da %3,97koa, kostuak kendu aurretik, eta %3,47koa, kostuak kendu ondoren.

Kostuen osaera

Sarrera- eta irteera-kostuak		18 hilabeteren ondoren irtenez gero
Sarrera-kostuak	Produktua kontratatzeagatik ordaintzen duzun kostua da. Prezioaren barruan dago.	75 EUR
Irteera-kostuak	Ez dago irteera-kosturik, produktua ez dagoelako erabilgarri epemugara arte.	0 EUR
Kostu arruntak		
Kudeaketa-komisioak eta funtzionamenduko beste administrazio-kostu batzuk	Produktu honek ez du inolako kudeaketa-komisiorik.	0 EUR
Eragiketa-kostuak	Produktu honek ez du inolako eragiketa-komisiorik.	0 EUR
Baldintza zehatzetan kendutako kostu gehigarriak		
Errendimendu-komisioak eta kontu-partaidetzak	Produktu honek ez du inolako errendimendu-komisiorik.	0 EUR

Zenbat denbora mantendu behar dut inbertsioa? Dirua aldez aurretik erretira dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 18 hilabete, gordailua epemugara iritsi arte

Gomendatutako mantentze-aldia dagokio produktuaren epemuga-datari. Gogoratu ezin dela produktua kitatu epemuga baino lehen, likidezia faltagatik.

Nola erreklamatu dezaket?

Gorabeherak konpontzeko, bezeroak jo dezake Kutxabanken bere ohiko bulegora, eta erantzunak gogobetetzen ez badu, kexa edo erreklamazioa aurkez dezake idatziz Kutxabankeko Bezeroen Arreta Zerbitzuan (Kale Nagusia 30-32, 2. solairua 48009 - BILBO), zerbitzu horren Funtzionamendu Araudiaren arabera eta kexa edo erreklamazioa agintari eskudunek ezarritako prozeduren arabera aurkeztu aurretik (prozedura horien berri emango da Kutxabankeko webgunean eta haren bulego quztietan).

Idatzia Kutxabankeko Bezeroen Arreta Zerbitzuari helarazteko moduak:

Kutxabankeko edozein bulegotan

Bezeroen Arreta Zerbitzuaren helbidera:

Kutxabank - Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua
Gran Vía 30-32 2. solairua
48009 Bilbao

E-mail: atencion.cliente@grupokutxabank.com, ziurtagiri digitala baduzu.

Gainera, bezeroa urrutiko bankako kontratu baten titularra bada, dagokion inprimakia bete ahal izango du, eskuragarri online Bankan eta Kutxabanken webgunean.

Erreklamazioak zerikusia badu ordainketa-zerbitzuekin, Kutxabankeko Bezeroen Arreta Zerbitzuak aztertuko ditu planteatutako gai guztiak, gehienez ere hamabost (15) egun balioduneko epean, kontatzen hasita erreklamazioa jaso denetik. Salbuespen-egoeretan ezin bada erantzun hamabost (15) egun balioduneko epean Kutxabanken borondatearekin zerikusirik ez duen arrazoiengatik, Kutxabankek behin-behineko erantzuna bidaliko du, erreklamazioaren erantzunaren atzerapenaren arrazoia azalduz eta behin betiko erantzuna noiz emango den zehaztuz. Nolanahi ere, behin betiko erantzuna ez da atzeratuko hilabete bat (1) baino gehiago.

Kutxabankeko Bezeroen Arreta Zerbitzuan kexa edo erreklamazioa aurkeztea ezinbesteko urratsa da gero kexa edo erreklamazioa agintari eskudunen aurrean aurkezteko, kasu honetan CNMV, zerbitzu horren erantzunak bezeroa gogobete ez badu edo zerbitzuak dagokion epean erantzun ez badu.

Kutxabank ez dago atxikita kontratu honi lotutako gatazkak konpon ditzakeen inolako kontsumoko arbitraje-batzorderi.

Beste datu interesgarri batzuk

Dokumentu hau eguneratzen bada, araudian ezarritako moduan, bertsio berria eskuratu ahal izango duzu, www.kutxabank.es webgunean.